

## Ikasleria ez-unibertsitariora mantendu egiten da, Haur-hezkuntza eta Lehen hezkuntzako matrikulazioengatik

### *Ikastetxe publikoetan gehiago hazi zen haur- eta lehen hezkuntzako matrikulazio-kopurua*

2007/08 ikasturtean ikasketa ez-unibertsitarioren batean aritutako ikasle kopurua 373.570 izan zen, aurrekoan baino %0,2 gehiago, Eustaten datuen arabera. Haietatik 348.526 ikasle arabide orokorreko ikasketetan aritu ziren; 7.091 matrikula berri egin ziren, %2 gehiago.

Mailaren arabera ezberdina izan zen bilakaera. Haur- eta Lehen Hezkuntzetako kopuruak 88.308 eta 107.329 ikasle izan ziren; aurreko ikasturtearen aldean %4,1eko eta %3,3ko hazkundeak, azken urteetako joerari eusten zaiolarik. Helduentzako heziketan ere matrikula gehiago egin ziren: 28.684, %6,8 gehiago. Heziketa berezian 983 ikasle aritu ziren, %1,5eko hazkundea.

### 1. taula-2007/08 ikasturtean matrikulatutako ikasleak

	2007-2008 ikasturtea			Matrikulatutako ikasleen urte arteko Δ		
	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak
<b>GUZTIRA</b>	<b>373.570</b>	<b>208.435</b>	<b>165.135</b>	<b>0,2</b>	<b>-0,5</b>	<b>1,2</b>
<b>Araubide orokorreko irakaskuntzak</b>	<b>348.526</b>	<b>185.473</b>	<b>163.053</b>	<b>2,1</b>	<b>2,9</b>	1,2
Haur-hezkuntza	88.308	45.157	43.151	4,1	4,4	3,7
Lehen hezkuntza	107.329	52.838	54.491	3,3	4,4	2,4
DBH	68.881	30.342	38.539	-	1,4	-1,1
Batxilergoa	29.112	15.299	13.813	-3,1	-4,4	-1,6
Erdi mailako LH	10.266	5.825	4.441	-2,4	-3,8	-0,6
Goi-mailako LH	14.948	7.385	7.563	-3,0	-2,7	-3,4
Hezkuntza berezia	998	442	556	1,5	-2,0	4,5
Helduen Hezkuntza	28.684	28.185	499	6,8	6,8	6,6
<b>Araubide Bereziko irakaskuntzak</b>	<b>25.044</b>	<b>22.962</b>	<b>2.082</b>	<b>-19,8</b>	<b>-21,2</b>	<b>0,3</b>
Hizkuntzak	20.803	20.803	-	-23,3	-23,3	-
Musika	3.273	1.740	1.533	2,8	4,9	0,5
Arte plastikoak eta diseinua	623	194	429	-9,6	-23,9	-1,2
Kirola	156	43	113	41,8	-	2,7
Dantza	76	69	7	11,8	11,3	16,7
Goi Mailako Diseinua	113	113	-	113,2	113,2	-

Iturria: EUSTAT.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) lehengoaren oso antzean dirau kopuruak, 68.881. Batxilergoan eta Lan Heziketan jaitsi egin ziren kopuruak, %-3,1 eta %-2,8. Ikasle murrizketa horren arrazoi nagusia maila horietan aritu beharreko azken urteetako biztanleria murrizketa da.

### **Erregimen bereziko irakaskuntzetako matrikulak %-20 urritu ziren**

25.044 ikasle aritu ziren erregimen bereziko irakaskuntzetan. %83 hizkuntz ikasleak izan ziren, ikasturte horretan %-23 urritu badira ere. Arte Plastiko eta Diseinuan %-9,1eko jaitsiera dago; gainerakoetan matrikula gehiago: Musika (%2,2); Kirola (%42), Diseinuko Goi Mailako ikasketak (%113) eta Dantza (%12).

Lurraldeka, Araban guztira 54.980 ikasle matrikulatu ziren; Bizkaian 195.894 eta Gipuzkoan 122.696. Aipatzekoa da Arabako (%0,6) eta Gipuzkoako (%1,1) matrikulazio-igoera; Bizkaian, berriz, jaitsi egin da (%-0,3).

### **Irakasleen %62 ikastetxe publikoetan aritu ziren.**

2007/08 ikasturtean 33.434 izan ziren irakasleak, kopuru hori 2008ko pertsona okupatuak %3,3 delarik. %97 araubide orokorrekoetan aritu ziren eta gainerakoak erregimen berezikoetan. Lantokiaren titulartasunari begira, irakasleen % 62k ikastetxe publikoetan lan egin zuen, eta % 38k ikastegi pribatuetan.

Araubide orokorreko irakaskuntzetan, irakasleak 32.317 izan ziren. Haietarik, 15.646 Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta gehienak emakumezkoak (% 85); 15.061 irakaslek Bigarren Hezkuntzan jardun zuten, bai derrigorrezkoan bai ez-derrigorrezkoan, hemen emakumeak %58 izan zirelarik.


Araubide Berezikoetan 1.117 irakasle aritu ziren, haietariko %54 emakumeak.

### **Araubide Orokorreko ikasleen %89k gainditu zuen, et %46k erregimen berezikoetan**

2007 urtean 156.297 ikaslek gainditu zuten irakaskuntza ez-unibertsitarioetako mailetan. Guztirakoa araubide orokor eta berezikoaren artean banatuz gero, gainditutakoak 143.457 eta 12.840 izan ziren.

Araubide orokorreko ikasketen artean lehen mailan 50.514 ikaslek gainditu zuten kurtsoa, %97k; DBHn 60.409k, %88k; batxilergoan 22.906k, %80k; erdi mailako prestakuntzan 3.534k, %77k; goi mailako lan heziketan 6.094k, %85ek.

**1. grafikoa.- Araubide orokorreko ikasketetan kurtsoa gainditutako ikasleak, hezkuntza mailaren eta hizkuntza ereduaren arabera 2007 (%)**



**Oharra:** "B" eredu batxilergoan eta LHn "A" indartua da.

**Iturria:** EUSTAT.

Hizkuntza ereduaren arabera, guztirakoaren portzentajearen (%89) gainerik B eta D ereduak izan ziren, biak %92rekin A ereduko zentroetan %82 izan ziren gainditutakoak.

Ikasturtea gainditutako ikasleak mailen artean banatuz gero ikusten da lehen hezkuntzan eta DBHn gainditutako gehien D ereduak dituela, eta erdi mailako lan heziketan A ereduak.

Batxilergoan gainditutako gehiago dago B eta D ereduetan, eta goi mailako lan heziketan A eta D ereduetan.

**Argibide gehiago:**

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte Barcina

+Tlf:+34-945-01 75 47 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)

Datu-bankua: [www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp](http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp)